



Andoaingo Udala

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, ALZHEIMERRAREN MUNDUKO EGUNA DELA ETA

Irailaren 21a ez da ahaztu beharreko eguna; Alzheimerren Munduko Eguna da. Andoaindar gizartea gaixotasun honen inguruan sentsibilizatzeko eta AFAGIren leloa "Dementziaren ibilbidean jardungo dugu" *izan* dadin, Andoaingo Udaleko Talde Politikoeak adierazpen instituzional hau adostu dugu.

Duela 30 urte, Alzheimerren gaixotasuna familia gutxi batzuen arazoa zen; gaur egun, lehen mailako arazo sozio-sanitarioa da, eta 25 urteren buruan hirukoiztea espero da.

Eragindako pertsonen kopuru handiak, familiengan eta zaintzaileengan duen inpaktu handiak, aurre egiteak dakarren laguntza-karga handiak eta horrek dakartzan kostu handiek Alzheimerren gaixotasuna osasun publikoaren eta gizarte-ekintzaren lehentasuntzat hartzea eragiten dute.

2022ko Alzheimerren Munduko Egun honetan, Alzheimerren eta beste dementzia batzuen ibilbidean zehar jardutearen garrantzia nabarmendu nahi dugu:

**KONTZIENTZIAZIOA > PREBENTZIOA > DETEKZIOA >
DIAGNOSTIKOA > TRATAMENDUA > DOLUA**

Horregatik guztiagatik, **ANDOAINGO UDALAK:**

- 1.- Elkartasuna adierazi nahi die Alzheimer eta beste dementzia batzuk dituzten gaixoei eta haien familiei, gaixotasun horren ondorioak egunero bizi baitituzte.
- 2.- Konpromisoa hartzen du konplizitatea indartzeko eta aktiboki lan egiteko bere eskumenen eta aurrekontu-aukeren barruan, Alzheimerren eta beste dementzia batzuen normalizaziorantz eta sozializaziorantz aurrera eginez.
- 3.- Animatu eta gonbidatu Andoaingo herritarrak irailaren 20ean, 22an eta 27an antolatutako jardunaldietan parte hartzera. Alzheimerren eta beste dementzia batzuen errealitateari aurrez aurre begiratzen lagunduko digute, bizkarra eman gabe.

Andoain, 2022eko irailak 21

PSE-EE

EAJ-PNV

EH-BILDU

ELKARREKIN PODEMOS



Andoaingo Udala

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL CON MOTIVO DEL DÍA MUNDIAL DEL ALZHEIMER

El día 21 de septiembre no es un día a olvidar; es el día Mundial del Alzheimer. Con el objetivo de sensibilizar a la sociedad andoaindarra sobre esta enfermedad y hacer propio el lema de AFAGI "*Actuamos en el itinerario del Alzheimer*", los Grupos Políticos del Ayuntamiento de Andoain hemos acordado esta declaración institucional.

Hace 30 años, la enfermedad de Alzheimer era un problema de unas pocas familias; hoy, es un problema socio-sanitario de primera magnitud, que se espera se triplique en 25 años.

El gran número de personas afectadas, el enorme impacto que tiene sobre las familias y personas cuidadoras, la gran carga asistencial que conlleva el hacerle frente y los grandes costos que ello supone, hace que la enfermedad de Alzheimer deba ser considerada como una prioridad de salud pública y de acción social.

En este Día Mundial del Alzheimer 2022, pretendemos resaltar la importancia de actuar a lo largo del itinerario del Alzheimer y otras demencias:

CONCIENCIACIÓN > PREVENCIÓN > DETECCIÓN >
DIAGNÓSTICO > TRATAMIENTO > DUELO

Por todo ello, el **AYUNTAMIENTO DE ANDOAIN:**

- 1.- Quiere mostrar su solidaridad y estar cerca de las personas enfermas de Alzheimer y otras demencias y sus familias, que viven diariamente las consecuencias de esta enfermedad.
- 2.- Se compromete a reforzar la complicitad y trabajar activamente dentro de sus competencias y posibilidades presupuestarias, avanzando hacia la normalización y socialización del Alzheimer y otras demencias.
- 3.- Anima e invita a la ciudadanía de Andoain a participar en las jornadas organizadas los días 20, 22 y 27 de septiembre, que nos ayudarán a mirar de frente a la realidad del Alzheimer y otras demencias, no dándoles la espalda.

Andoain, a 21 de septiembre de 2022